

**Testuetan lagun
(Oinarrizko zenbait kontzeptu argitzeko hiztegitxo)**

**Gotzon Aurrekoetxea
Henrike Knörr**

**2004ko otsaila
Euskal Testuak irakasgaia**

**Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
GASTEIZ**

Hiztegi honek jabea du

Testuetan lagun *

(Oinarrizko zenbait kontzeptu argitzeko hiztegitxo)

ablatibo Nondik kasua: *etxetik*.

absolutibo: Hizkuntza ergatiboetan, nor kasua subjektua eta nor kasua osagarri zuzena: *Gizona etorri da / Gizona ikusi dugu*.

adierazkor Soinu baten bitartez hitzak har dezakeen esanahi berezia: *xatox, pixkor*. **Adierazgarri** ere erabiltzen da.

aditz-erro Aditzetan zama semantikoa duen zatia. Adibidez, *ekarri* aditzaren aditz-erroa *-kar-* da eta *etorri* aditzarena *-tor-*.

aditz-izen Aditzaren forma, izenaren parekoa: *ikuste, jasate*.

aditzoin Aditzaren forma biluzia: *ikus, jasan*. Ez da nahasi behar **aditz-erroarekin**.

adlatibo Nora kasua: *etxera*.

aferesi Hotsen bat hitz hasieran galtzea: gazt. *etorri* > *torri* (behe mailan).

afrikatu Herskari + txistukari multzoa: *atzo, otso, atxiki*.

agramatikal Gramatikaren aldetik zuzena ez den forma: *noaz, Enekokek*. Horrelakoetan * bat ipintzen da ezker aldean (ikus behean, ikur edo zeinuen atala).

ahoskabe Ahots-kordak dardarazi gabe sortzen diren hotsak: *bekatu, koru, daratulu.*

ahostun Ahots-kordak dardaraziz sortzen diren hotsak: *bekatu, goru, daratulu.*

akronimo Lehen letrez egindako izena: *EGA, ADSL*. Hitz-multzoa ere erabili daiteke: *Euratom* (< *Europa* + *atom*).

aliterazio Soinu berdinak edo antzekoak arrazoi estilistikoengatik errepikatzea: *Maiz duzu zeure zuzia piztu*.

alokutibo Hizketa-laguna adizkien bitartez gure mintzoan lotzea: *Egun polita diagu, etorri nauk.*

alternantzia Ikus **txandakatze**.

* Hau hiztegitxo honen 2. argitaraldia da. Helburua ikasleei euren ikasketa prozesuan laguntza ematea da. Eskerrak ematen dizkiegu Xabier Artiagoitia, Ricardo Gómez eta Lourdes Oñederra irakasleei egin dituzten ohar eta helarazi dizkiguten aholkuengatik.

anatoriko Perpaus batean, elementu bat (normalean juntagailua), adiera urrikoa, beste baten lagungarri gisa ageri dena: *Hain zen garestia, non ez erostea erabaki baitzuen*; cf. fr. *l'argent, j'en ai*. Zenbait hizkuntzalarik adiera zabalagoa ematen diote, erakusleak eta sartuz.

anaptixi Bokal bat sartzea (bokal anaptiktikoa), kontsonanteen artean, ebakera errazteko: *bizikeleta, sekeretu. Ingalaterra*; lat. *drachuma* (< gr. *drachmé*).

antizeñismo *Zein, nor, nola* eta antzekoak galdera-perpausetatik kanpo erabiltzearen kontrako jarrera, R.M. Azkue eta Patrizio Orkaiztegik defendatu zutena. Demagun, *Zeregin bat duzu gaur edo Gizon hori, zeinengan baitut konfiantza osoa...* bezalako perpausak ez lirateke antizeñistentzat zuzenak.

antologia Artikulu edo besteren bilduma eta hautaketa.

antroponimo Pertsona-izena: *Maria, Aroztegi*.

aoristo Ekintza burutua iraganaldian: *joan zen*.

apokope Hitz-bukaera moztea: *Aralar* < *Aralarre*; *san* < *sanctus*.

apokrifo Ustez esaten den sasoi edo autorearena ez den liburua edo liburu-zatia.

argitaraldi Liburu (edo, oro har, idatzi) baten plazaratze bakoitza.

arkaismo Hizkuntzan zaharkitua den hitza edo ezaugarria: *harritu* aditzaren "gogortu" adieran.

artizki Hitzaren erdian jartzen den hizkia: *erabili*.

asimilazio Hurbil dauden bi hots berdintzea edota hurbiltzea (bi baino gehiago ere izan daitezke): *paradisu* > *parabisu*. Ik. **disimilazio**.

aspirazio Ikus **hasperenketa**.

atono Azenturik ez duena (beste maila batean tonurik ez duenez esaten da): *leky* hitzean, adibidez, *u atonoa* da.

atzizki Hitzei atzean jar dakiekeen hizkia: *ikertzaile, barnetegi, ahaidego*.

aurrizki Hitzei aurrean jar dakiekeen hizkia: *desegin*.

betegarri (edo **espletibo**) Berez esanahia ez duen hitza edo osagaia *Nahiago nuke trenez etortzea ezen ez autoz* (ez hori da betegarria).

bustidura (edo **palatalizazio**) Fonema batek aho-sapaian hartzen duen aldaketa. Bustidura automatikoa izan daiteke: *egiña*; edo adierazkorra: *llabur, Txabi*.

Cf. gaztelaniaz, *ser* aditza: es (lat. *esse*), baina *será* (lat. *sedere*).

confer (cf. / cfr.) Ikus azkenaldean.

deberbal (edo **aditzetiko**) Aditz batetik datorren izena edo adjektiboa: *aipu* ← *aipatu*; cf. gazt. *cese* ← *cesar*.

defektibo Formak falta dituen aditza. Demagun, **nadi* inperatiborik ez da. Horren ordez, *nadin* subjuntiboa erabiltzen dugu; *-io-* erroak ez du forma ez-jokaturik, forma jokatuak bakarrik: *díot*, e.a. Cf. Gaztelaniaz **abolo*; hori ez, *elimino* edo erabiltzen da. Ik. **ordezko**.

denominal (edo **postnominal**, edo **izenetiko**) Izen edo adjektibo batetik datorrena: **garbi** > **garbitu**.

diakronia Hizkuntzaren azterketa denboran zehar.

diptongo Silaba bakarrean ahoskatzen diren bi bokal desberdin: *emakoi*.

disimilazio Hurbil dauden bi hots berdin edo antzeko desberdintzea: *debetatu* > *debekatu* (*t-t* > *t-k*), *lebami* > *legami* (*b-m* > *g-m*). Disimilazio-galera da mota bat: *Ydiac eta beyac yl ezauz* (RS, 429), “mátalos” < *ezazuz*.

edizio Liburu bat edo bestelako izkribu bat argitaratze-lana, bereziki horretarako behar den ikerketa eginik. Demagun, Joseba Lakarrak *Refranes y sentencias*-en edizio bat argitaratu zuen Euskaltzaindiaren *Euskararen lekukuak* liburu-sortan.

elipsi perpaus batean osagairen bat, adibidez aditza, ez agertzea, arrazoi pragmatikoak direla bide: *Bihar guztiok [joango gara] mendira*

elisio Orokorki, hitzaren edo perpausaren materiala galtzea: **seimarabediko* > *semeiko*, *xemeiko*; *utz ezazu* > *utzazu*; ing. *It seems we have a problem* > *Seems we have a problem*. Elisioaren kasu berezi bat **sinalefa** da, ikus.

emankor Hitz berriak sortzeko gai den hizkia: *lasaiki*, *setatsu* (aldiz, badirudi zu ez dela honezkero emankorra: *mukizu* e.a.); *-tu* aditzetan (*-i*, ordea, ez da emankorra: *ikus-i*).

enklitiko Hitz baten edo hitz-zati baten ondoren datorrena, azentu-multzo bakarria eratuz eta berak azenturik hartu gabe: bizk. *neu be*; gazt. *dígaselo*. Ik. **proklitiko**.

epentesi (edo **eransketa**) Hots bat hitz baten barruan sartzea: *bekatuba*; cf. ingelesez *empty* (< *aemptig*). Anaptixiarekin nahasten da maiz.

eratorpen Hizkien bidez hitz berriak sortzea: *erakundetze, mesfidakor*.

ergatibo: Nork kasua bereizten duen forma: *Gizonak egin du. //* Hori bereizten duen hizkuntza (*hizkuntza ergatiboa*).

erlatibo Izen lagunaren funtzioa duen mendeko perpausa: *etorri den gizona nire aita da; gizona, zein goizean ikusi dudan, oso jakintsua da.*

erromaniko Latinaren kumea den hizkuntza // Hari dagokiona.

ez-pertsonal Ikus **jokatugabe**.

gradazio Adjektiboek izan dezaketen mailakatzea. Behekoa *positiboa* deitzen dugu (*on*); hurrengoa konparatiboa (*hobe*); eta goikoa superlatiboa (*onen, hoberen*).

Izen batek ere izan dezake gradazioa, baldin adjektibo gisa badarabilgu: *astoago*.

frikari Ikus **igurzkari**

hapax (edo **hapaxlegomenon**) Behin bakarrik ageri den hitza: *endore "alkate", RS liburuan*.

haplologia: Elkarren hurren dauden eta berdinak edo antzekoak diren bi silabatan bakarra gelditzea: *sagarardo > sagardo; idolo + latra > idolatra: Internet + nauta > internauta (ez *internetnauta), *Nadividad > Navidad*.

hasperenketa (edo **aspirazio**) Hitz edo hitz-zati bat ebakitzean arnasa hartzea: Iparraldeko euskalkietan, *hiru, lehen*.

hemistikio (edo **bertso-erdi**) Bertso-lerro baten erdia, eten batez zatitua.

herskari Ahogunean organo bi erabat itxiz sortzen den hotsa: *panpox, bekatu, tesi, daratulu, goru, kimu*.

hiato Elkarrekin dauden bi bokal diptongoan ez gertatzea, hots, silaba banatan ahoskatzea: *be-rrri-a, O-ri-o*. Gogora bedi batzuetan bokal edo kontsonante antihiatikoa sor daitekeela:

a) bokala: *bizi dirala iondiño*, Kepa Enbeita zaharraren bertso ezagunean.

b) kontsonantea: *gauherdiz, bekatuba, hoberen (< hobeen)*.

hiperbaton Perpaus batean, ordena arrunta ez dena: *Del salón en el ángulo oscuro* (Bécquer).

hiperkarakterizazio Hitz batek duen ezaugarria beste ezaugarri batez indartzea: *gen-e-ki-gu-n, d-it-u-z-te, zai-ta-da-k*.

hipokoristiko Nagusiki pertsona izen baten txikigarri: *Maritxu, Beñat* (< *Bernat*).

hitz elkartua Berez hitz autonomoak direnak elkartuz beste adiera berri bat hartzen duen unitate lexikala: *berri + paper → berripaper; buru + gogor → burugogor*.

hitz lau Silabak neurtu gabe idatzitako testua. Prosa.

hizki Gramatikan, eraketa-elementua erroarekin batera hitzaren osagai. Hiru motatakoa izan daiteke: **aurrizki, artizki eta atzizki**; ikus. Hobe dugu "letra" adierarekin ez erabiltzea.

igurzkari Ferekatuz bezala sortzen den soinua: *su, zu, abere, afari, Pujol, xuri*.

inesibo Non kasua: *etxean*.

iragangaitz Nor kasua subjektu gisa bakarrik onartzen duen aditza: *joan naiz*.

iragankor nork kasua subjektu gisa bakarrik onartzen duen aditza: *ekarri dut*.

izarño (*) Gramatika tradizionalen suposatzen den baina dokumentatua ez dagoen forma: *gau + ari > *gabari > abari*. Hizkuntzalaritza modernoan, agramatikala den forma edo perpausa: **Haurrak etorri da*.

jokatu (edo **personal**) Aditzean, pertsona bakoitzerako forma bana duena: *noa, hoa*, e.a. Ikus hurrengoa.

jokatugabe (edo **ez-personal**) Aditzean, pertsona bakoitzerako forma berezirik gabekoa, hau da, oina (*ikus*), partizipioa (*ikusi*), aditz-izena (*ikuste*).

kakofonia Entzuteko atsegin ez den soinu berberen errepikatzea da kakofonia: *horrela lana*.

kategoria (edo **gramatika kategoria**) Hitz bat sailkatzeko erabiltzen dugun irizpidea: adjektiboa, izena, e.a.

klitiko Nortasun erabatekoa ez duen elementua, hitzaren aurrean (**proklitiko**, gazt. *san*) edo atzean (**enklitiko**, eusk. *ere*) izan daitekeena.

komitatibo Norekin kasua: *adiskidearekin*.

konparatibo Adjektibo baten gradazioan abantaila duena: garesti-ago. Gogora ezazu adjektibo guztiek ez dutela hori: **bikainago*.

konposaketa Hitz batuketaz hitz berriak sortzea: *berripaper, pasahitz, bidegurutze*.

krestomatia Irakaskuntzarako testu hautatuen bilduma.

kultismo Goi-mailan bakarrik erabiltzen den hitza (*geurtz* “datorren urtea”) edo mailegua, hizkuntza batean sartzean aldaketa handirik nozitu ez duena: cfr. gaztelaniaz *episcopal* (*obispo*, aldiz, ez da kultismoa).

latinismo Latinetik datorren mailegua: *lege* (< *legem*), *anoha* (*annona*).

letra etzan (ingelesez *italic*; gazt. *cursiva*) Letra mota bat, iruzkintzen edo komentatzen den forma, hitza edo perpausa nabarmentzeko: adib., *niz* adizkia ez da lapurteraz erabiltzen.

letra larri Besteak baino neurri handiagoz idazten den letra, maiuskula: *Donibane*. Ik. **letra xehe**.

letra xehe Letra larria ez dena, minuskula: *mahai*.

mailegu Beste hizkuntza batetik hartutako hitza: *errege* (< lat. *regem*).

metatesi Hitz batean hotsak lekuz aldatzea: *kaiola* > *kaloia*, *maradikatu* > *madarikatu*.

monoptongazio jatorriz diptongo edo bi silabatan ahozkatu izan diren hotsak bakar batean ahozkatzea: *merienda* > *merinda*

neurtitz Silabak neurtuz idatzitako testua. Olerkia.

ordezko (Ing. *suppletive*) Beste formaren ordezkari erabiltzen dena. Adibidez, *izan* aditz iragangaitzean *naiz*, *zara* erabiltzen da, baina subjuntiboan **edin* aditzak betetzen du eginkizun hori: *nadin*, *hadin*, e.a. Era berean, *idazu*, *iguzu* ordezko formak dira, *jin* aditzak inperatiborako *eman* aditzari utziak.

Cf. katalanez, *anar* aditza (“joan”), indikatiboko orainaldia:

vaig
vas
va
anem
aneu
van

Paradigma horretan *vaig*, *vas*, *va* eta *van* ordezko formak dira.

Gaztelaniaz *abolir* aditzak ez du indikatiboko orainaldian lehen forma; ez dugu esaten **yo abolo*, baizik *yo elimino*.

Ordezketasuna erabatekoa izan daiteke, katalanezko adibide horretan bezala, edo euskarazko inperatiboaren lehen pertsonan:

ikus dezadan esaten dugu, subjuntibo forma bat erabiliz, inperatiboak forma hori ez duelako.

Beste batzuetan, aukerakoa izan dateke ordezkotasuna, gehienetan hizkuntza-mailaren arabera:

ikus beza idazten ohi dugu, baina *ikus dezala* esaten.

Adjektiboen gradazioan ere izaten dira ordezeko formak:

on / hobe (eta ez **onago*) / *onen, hoberen*
asko / gehiago (eta ez *askoago*) / *gehien* (eta ez **askoen*)
 Cf. *good* / (eta ez **gooder*) *better / best*

oxitono Azentua azken silaban duena: bizk. ardau; gazt. llegué.

paragogiko Hitz bukaeran sortzen den bokala: Uztaritze; cf. gaztelaniazko olerki zaharretan felice.

partitibo (*r*)*ik* kasua: etxerik, bihotzik.

pertsonal Ikus **jokatu**.

pleonasm Erabiltzen diren adierazpen-elementuak eduki jakin batean adierazpenak eskatzen dituenak baino gehiago direnean: gora igo. Pleonasmoa morfologia aldetikoa bada, orduan hobe **hiperkarakterizazio** erabiltzea, ik.

proklitiko Hitz baten edo hitz-zati baten aurrean datorrena, azentu-multzo bakarra eratuz: San Roke. Ik. **enklitiko**.

proparoxitono Azentua azkenaurreko silaban duena: ikastola.

protesi Kontsonante jakin batez hasten diren hitzetan aurretik bokal bat ezartzea. Lat. *spiritus* > eusk. espiritu; lat. *regem* > eusk. errege.

puntukari Une batean gertatzen dena, aditzaz ari garenean: joan zen.

sinalefa Hitz baten azken bokala galtzea, hurrengo hitzaren lehen bokalarekin batzean. *Andre eder* > *andr' eder*; *muga hartan* > *mug' hartan*. Cf. gazt. *la harina* > *l'harina*, fr. *la amie* > *l'amie*. Neurtitzetan erabiltzen da, batez ere, kontzeptu hau.

sinkopa Hitz batean barneko hots bat desagertzea, eskuarki bokal bat: abre (< abere).

sinkretismo Bi forma jatorriz desberdinak edo analisiak berezi egiten dituenak, forma bakar batean nahasita agertzea: *diote* leku askotan = “diote” eta “die”.

sinkronia Hizkuntzaren azterketa garai batean.

superlatibo Gradazioan adjektiboak har dezakeen goiko maila: *Lizardi da idazlerik barnekoiena*.

soziatibo begiratu

solezismo berez gramatika erabilera zuzenari ez dagokiona: *hainbat etxe guztiak; eman nazu*.

toponimo Leku izena: *Bilbo, Mendizorrotza*.

txandakatze (edo **alternantzia**) Oinarritzko unitate batzuetan gauzatze desberdinak gertatzea. Gogora euskara zaharrak zuen txandakatzea:

Partizipioa (kots. ahoztuna)	Izena, aditzondoa (kots. ahoskabea)
<i>galdu</i>	<i>kalte</i>
<i>ebaki</i>	<i>epai</i>
<i>ebatsi</i>	<i>epasko</i>
<i>edeki</i>	<i>etekin</i>

txistukari Kontsonante igurzkaria edo afrikatua, txistu moduko soinua dakarrena: *sei, atso, zubi, artzain, huraxe, atxiki* (hau da, euskaraz s, ts, z, tz, x, tx),

Ikur edo zeinu batzuk

> Bi hitzen artean, ezkerrekoa eskuinekoaren aurrekaria da: **eakin > jakin*.

< Bi hitzen artean, eskuinekoa ezkerrekoaren aurrekaria da: *jakin < *eakin*.

* 1. Gramatika historikoan, dokumentatu gabeko forma: **eakin, *gauari*.

2. Linguistika modernoan, forma agramatikala. **noaz, *Enekokek*.

[] 1. Testu batean ageri ez diren hitzak edo letrak osatzean erabiltzen dugu ikur hau: *nif[c] eccarri dut liburua*.

2. Idazkera fonetikoan hitzen ebakera adierazteko ikurra.

/ / Alfabeto fonologikoan fonemak adierazteko ikurra: *etxe /etʃe/*

~ Bokal baten gainean, nasalaren ikurra: zubereraz *ãhãri* ('ahari'), adibidez. Baina gogora ezazu testu zaharretan *n* arrunt baten ordeaz agertzen zela: Leizarragak eta beste anintzek, adibidez, *erraitẽ* ('erraiten') idazten zuten maiz.

cf., cfr. Latinezko hitza, *confer* = 'konpara ezazu'.

ms. Latinezko manuscriptum ('eskuizkribua')

Bibliografia

- Lázaro Carreter, Fernando: *Diccionario de términos filológicos*. Madril, Gredos, 3. argitaraldia, 1990.
- Marouzeau, J.: *Lexique de la terminologie linguistique*. Paris, Paul Geuthner, 3. argitaraldia, 1969.
- Trask, Robert L.: *A dictionary of grammatical terms in Linguistics*. Londres-New York, Routledge, 1993.
- Trask, Robert L.: *A dictionary of Phonetics and Phonology*. Londres-New York, Routledge, 1996.
- UZEI, *Hizkuntzalaritza Hiztegia*. 2 liburuki, Elkar, Donostia.